

ANALISIA



JAIZKI FONTANEDA / ARGAZKI PRESS

De Miguel Auzia: EAJri lotutako ustelkeria epaitegietan



Lander Arbelaiz Mitxelena
@larbelaiz

“De Miguel auzia EAEko ustelkeria prozesurik garrantzitsuena da”, deskribatu zuen Espainiako Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak 2017ko martxoan. EAJko hainbat kide-ohik gidatutako legez kanpoko komisioen ustezko trama epaituko dute. Fiskaltzak 119 urteko espetxe zigor eskaera egin die 26 auzipetuei.

Enpresari batek fiskaltzari egindako salaketak lehertu zuen gaia. Adjudikazio publiko baten trukean 100.000 euroko komisioa kobratu nahi ziotela salatu zuen. 24 grabazio eta emailak aurkeztu zituen frogara gisa. Hari horri tiraka, Ertzaintzak mahai gainera atera zituen komisiotan kobratutako beste 700.000 euro, legez kanpoko operazioetan 16 milioi euro eta beste proiektu urbanistiko batean 65 milioi. EAJk Araban zuen bigarren arduraduna, Alfredo de Miguel diputatu ohia jotzen da komisioak kobratzeko enpresa sarearen buru. Poliziaren arabera sozietate horiek EAJk gobernatutako udaletxeetan –Zigoitia eta Lapuebla de Labarca– emandako obra publikoen kontratuen %4 inguruko ordainketak jaso zituzten bi alditan. Sekula egiten ez ziren aholkularitza-lan gisa kamuflatzan zituzten fakturak.

Ondorengo delituak egozten zaizkie besteak beste: Kontratazioan iruzurra, prebarikazioa, diru publikoaren erabi-

lera okerra, dokumentu publikoen falsuztea, influentzia trafikoa, funtzionarioen-eroskeria eta diru zirutzeta. Orain arte, akusazio guztiak gezurtatu dituzte ikertuek; kasualitateak, gaizkiulertuak edo Ramos epailearen eta Izagirre fiskalaren “fabulak” direla adierazi zuen Cuatrecasas bufeteko De Miguelen abokatuak. Bide batez, Cuatrecasas abokatuen bufetea ere arakatu du Poliziak PPreu ustelkeria kasuen harira.

Alfredo de Miguelez gain, Araba Buru Batzarreko kide izandako Koldo Otxandiano eta Aitor Telleria eseriko dira beren emazte Ainhua Bilbao, Araceli Bajo eta Iratxe Gaztelu-Urrutiarekin; baita Arabako Parke Teknologikoko zuzendari ohi Alfonso Arriola, Jon Iñaki Echaburu, Francesc Fernandez Joval eta Jesus Arruti enpresariak, Eusko Jaurlaritzako Gazteria saileko zuzendari Xabier Sanchez Robles, Jaurlaritzako Kulturako kontseilari-orde Gurutz Larrañaga eta EAJk Leioan zuen zinegotzi Iñaki San Juan ere.

Orotara 150 lekuko eta peritok hartuko dute parte auzian. EAJk egindako adierazpenei behatuta, agerikoa da beldur diola auzia mediatiko bilakatzea, ondorio politikoak kalkulaezinak direlako. Bere burua kudeatzaile on gisa aurkeztu ohi duen EAJri zer faktura pasako dion ikusteko dago. Europarekin beharrean, Espainiarekin konparatuz eraikitako *Euskal Oasiaren* ideia ez dela sostengatzen erakusten du epaiketako argazkiak.

EKONOMIAREN TALAIAN

Kalitate hobeagoko enplegua?



Juan Mari Arregi

Urte berria iristen denean, gobernu guztiek nahi dute, euren diskurtsoetan, enpleguaren inguruan duten kezka larria iragarri. Eta jakina, kalitate hobeagoko enpleguaren alde aritzen dira. Baina euren politikek prekarietatea sustatzen dute: lanpostu berrien %92 prekarioa da. Aurten ere, EAEko eta Nafarroako gobernuak publizitate kanpaina egin dute, autogobernuaz eta enpleguaren inguruan duten kezka. Baina hitz horiek, Gabonetako diskurtsoak izanagatik, ez diote errealtateari erantzuten.

Autogobernuak kateaturik segitzen du Madrilgo Gobernutik hartzen diren erabakien ondorioz, bere arauak urratzen jarraitzen baitu, eta duela dozenaka urte EAEn eta Nafarroan garaturik egon beharko liratekeen eskumenak beretzat dauzka oraindik. Madrilek funtzionarioei soldatak izoztea inposatu du, eta Gasteiz nahiz Iruñea bide beretik doaz, nahiz eta hitz emanda zuten %1,5eko igoera eskasa, eta aurrekontuetan horretarako partidak dituzten.

Urkilluk esan digu urte berri hau kalitate hobeagoko enpleguarena izango dela, baina bi egun geroago erabaki du bere lantalde osoaren soldatak izoztea. Kalitatea aipatzen du, bere enpresa publikoetan %35eko behin-behinekotasuna dagoenean. Barkos, pozarren kontzertu ekonomikoa berri duela, Madrilen oinpean jarri da eta hark inposaturiko soldata izozketa onartu du enplegatu publikoentzat.

Ondo legoke publizitate-diskurtsoak abandonatu eta benetako errealtatea erakutsiko balute, Madril aitzakiatzat hartu gabe. Madrilek begira jarraitzen duten bitartean, berdin jarraituko dugu. Lan harremanak, berdintasuna, kalitate oneko enplegua eta babes soziala lehene-tsiko dituen burujabetza prozesu baten alde egitea, hori da bidea.